FITXA: 284 – 2026-2027 tokiko enplegu-proiektuak finantzatzeko dirulaguntzen 2026ko ekitaldiko deialdia arautzen duten oinarriak.

Nori zuzendua: Deialdi honetako laguntzen onuradun izan daitezke, aldez aurretik berariazko eskaera egin ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriak, udalerri-taldeak, kuadrillak edo mankomunitateak, bai eta horien mendeko toki-garapeneko agentziak ere, baldin eta nortasun juridikoa badute.	
Deialdia: EHAA - Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria	**Deialdiaren data:** 2026/10/27
Sarbide-esteka: https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1009217	
Erreferentziazko araudia: EBAZPENA, 2026ko urriaren 20koa. - https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/10/2604513e.pdf	
Eragin eremuak: Tokiko Garapena eta Enplegua	
Zenbatekoa: 8.153.669,00 €	
Aurkezteko lehen eguna: 2026/10/28	**Aurkezteko azken eguna:** 2026/11/28
Aurrerakina: Ez da zehaztu	**Aurrerakinaren gehieneko %a:** Ez da zehaztu
Gehieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.	**Gutxieneko zenbatekoa:** Eskualde bakoitzeko gutxienez 75.000 euroko zenbatekoan.
Tramitazioa: Laguntzak emateko prozedura lehiaketa gabeko norgehiagoka da.	

Laburpena

Oinarri hauen xedea da tokiko enplegu-proiektuetarako 2026ko ekitaldiko laguntzak arautzea eta horien deialdia onartzea, toki-erakundeek enplegua sortzeko proiektuak abian jar ditzaten, beren jardun-eremuko lurraldearen garapen sozioekonomikoa eta modernizazioa bultzatzeko eta modu orekatuan eskaintzeko enplegu-aukerak EAEko eskualde guztietan, 2030 Euskal Enplegu Estrategiarekin bat etorriz eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa beteta.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Enplegua sustatzea (1. mota).

Kontrataziorako laguntzak (2. mota).

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Kontratatutako pertsonen soldatak eta gizarte-segurantza.

Gastuetarako aldi hautagarria

Proiektuetarako baldintzak. Bere jarduketak (enpleguaren sustapenerako kontratazioak edo toki-erakundeek kontratazioan laguntzeko egindako deialdien oinarrien argitalpena) deialdi hau EHAAn argitaratu eta hurrengo eguna eta 2026ko abenduaren 31 bitartean hasiko dira, eta bukatu, berriz, 2027ko ekainaren 30ean, beranduenez.